





«Hirigintza eta informazioa elkarren osagarriak dira gizarte kapitalista zein antikapitalistetan, isiltasuna antolatzeke arduradunak diren neurrian. Hirigintza ideala, bai Mendebaldean bai Ekialdean, gatazkarik gabeko gizarte baten proiektzioa da».¹

Gaur egun esan liteke ia hiri guztietan espazio publikoa topaleku eta sozializazio gune izatetik hiriko puntu baten eta beste baten arteko iragan-leku huts izatera pasatu dela; haren diseinuak bideratuago ematen du itxuraz hedatuz doan sistema zalantzarik gabe kapitalista baten produkzio-fluxuak optimizatzerara, herritarren ongizate eta josteta desirak asebetetzera baino.

Alabaina, hiria produkzio espazial gisa ulertzen baldin badugu eta geure buruari galdetzen badiogu zer instantzietatik sortzen den, hasieran Estatuan eta haren funtzio arautzailean pentsatzen dugu, erabakitzen baitu hiriaren egonkortasuna eta iraunkortasuna alderdi fisikoan, bai zentzuaren aldetik ere.

Arauen diseinua, hiri egitura (kaleak, plazak, auzoak, e.a.), epe labur, ertain eta luzeko politika fiskalak dira, besteak beste, Estatuak espazio publikoaren produkzioa arautzeko baliatzen dituen jardueretako batzuk. Baina espazio publikoa ez da soilik sortzen Estatuaren instantzietatik eta kapitalaren logiketatik. Sortzen da orobat -eta eraldatu- bertan biziz, bertan ibiliz eta era kritikoan bereganatuz.

Artea, geografia, soziologia, hirigintza, antropologia eta zientzia politikoak bezalako diziplinetatik ikuspegi berriak sortzen ari dira espazioaren² esperientzia eta kontzeptualizazioaren inguruan; horiek ahalbidetu egiten dute sistema hegemonikoek definitu dituztenak -historian espazioa praktikatu, irudikatu eta habitatzeko moduak erabaki dituztenak- ez bezalako konfigurazio espazialen produkzioa, ordenatzea eta praktika.

Henri Lefebvre pentsalari frantziarrak planteatzen duen moduan: espazioa salgai bat bezala sortzen da, eta hiru esparru desberdinetatik egiten da hori:

Lehen esparruan espazioaren produkzioa boterearen eta kapitalaren irudikapenei lotuta dago: Estatuak, hirigileek, arkitektoek eta teknokraziak sortutako espazioa da. Bigarren esparrua bere biztanleek sinbolo, irudi eta trukeen bidez bizi duten espazioa da; bertan hiriaren irudia era kolektiboan eraikitzen da esperientziatik eta elkarriketatik abiatuta, herritar bakoitzaren oharren artean, leku espezifikokoak (kaleak, parkeak, eraikinak, monumentuak, e.a.) bereganatzen diren bezala zentzua eta esanahia emateko. Azkenik, espazio praktikatua dugu, hau da, herritar bakoitzak hiriaren espazioa bizi eta ibiltzeko dituen moduak. Ildo horretan, esparru bakoitza pentsa daiteke pertsonen hiria irakurri eta interpretatzen duten moduan, Estatuak eta hirigileek eraikitako testutik abiatuta.



Hiru esparru horiek badute zerikusirik Henri Lefebvre³ filosofoak -garai batez Situazionismoari lotua- *Espazioaren produkzio soziala* bere lanean agertzen dituen planteamenduekin; lan hartan espazioa fetixegabetu nahi du dimentsio bizi gabe eta aldez aurretik erabaki moduan ez sumatzeko: espazioa gauza bizi eta dinamikoa da, sortu eta eratzen dena, ez bakarrik Estatuaren normatibitatetik eta hirigile eta arkitektoen diseinuetatik, baita eguneroko bizipenetatik (irudiak, sinboloak) eta herritar arruntak hura praktikatu eta behatzeko dituen moldeetatik ere.

Testuinguru horretan, espazio publikoa eratzen da irudikapen espazio moduan; bertan dabilta herritarrentzat egokiak diren irudiak, ideologiak, sinboloak eta ikuskizunak. Espazio horretantxe gertatzen da hiri eredu jakin bati jarraitzeak ematen duen aurrerabide ilusioa, kultur adierazpenen bilakaera etengabea estatu gero eta landuagoetarantz, berritasuna espektakulu gisa merkataritza formalaren erakusketetan, espazio publikoa eta haren arautzea, Estatuaren boterearen erakusketa den aldetik.

Irudikapen horien kontsumo kritikoa jendearen aldetik ere gertatzen da. Hau da, XX. mendearen erdialdea arte uste zenaren kontrara, kontsumoa ere produkzio gunea da, bertan inguratzen duten irudiak eta sinboloak berrinterpretatu, birdefinitu eta eraldatzen dituen kontsumitzaile baten espezifikoa diren bereganatze eta erabilera-moldeak sortzen diren neurrian.

Era honetan uler daiteke espazio publikoa *eszenategi* moduan; bertan herritar bakoitzak espazioa sortzen du bere behaketa eta ibilbideetatik abiatuta, zeinean hark ere paper bat antzetzten baitu, bertan hiria irudikatzen dute arauak, sinboloak, irudiek eta, jakina, hartan barrena herritar bakoitza islatu eta ibiltzen denaren behaketek eta esperientziek.



↑ Bogotako (Kolonbia) zazpigarren kalea. Jaime Iregui, 2005.

¹ Vaneigem Raoul. *Comments Against Urbanism*, Internationale Situationniste #6 (August 1961). International Situationist On line. 2007ko urtarrilaren 23an berrikusia: →www.cddc.vt.edu/sionline/si/comments.htm

² Gaur egungo geografiaren testuinguruan, Milton Santos brasildarrak espazioa definitzen du «ez horrenbeste gauza moduan edo gauza-sistema moduan, errealtate erlazional moduan baizik: gauzak eta erlazioak elkarrekin. Garrantzitsua da espazioa kontzeptualiza daitekeen hiru moduez pentsatzea. Lehenik, espazioa zentzu absolutu batetik ikus daiteke, existentzia espezifikoa, zehatza duen gauza moduan. Lur-neurtzaileen eta geografoen espazioa da hori. [...] Bigarrenik espazio erlatiboa dugu, objektuen arteko erlazioak azpimarratzen dituen, eta objektu horiek existitzen direlako eta elkarrekin erlazionatuta daudelako existitzen dena. [...] Hirugarren espazio mota espazio erlazionala da, zeinean eduki moduan sumatzen baita espazioa, eta bere barruan irudikatzen baititu objektuen artean existitzen diren bestelako erlazioak». Milton Santos, *Metamorphosis of the Inhabited Space*. Ed. Oikos-Tau, 1996.

³ Henri Lefebvren arabera, espazioa salgai bat sortzen den modu berean sortzen da: «Espazioan botere eta ezagutza diskurtsoak botere harreman errealek bihurtzen dira». Lefebvrek hiru espazio dimentsio identifikatzen ditu. Bata da ingeniari-tza eta arkitektura alorreko profesionalak egiten duten espazioaren irudikapena, adibidez, eraikin eta errepede terminoetan, eskuarki espazio publiko edo «ofizialak» sortuak. Bigarrena irudikapenerako espazioa da, alegia, espazioa dela-eta sortzen diren irudiak, eta hau pentsatua baino gehiago sentitua da. Hirugarren dimentsioa Lefebvrek praktika espazialak esaten diena da, hots, eguneroko bizitzako ibilbide eta sareak.